

EAEko IRAKASLEAK

2022-23 IKASTURTEAREN BIRBARMAZIOA.

Gogoratu birbaremazio-prozesua atari berrian burutuko dela:
<https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio>

EPEa gainditu dutenei ofizioz zenbatuko zaizkie 6 puntuak.

Izangaiaren fitxa azaroaren 8tik 16ra deskarga daiteke (**Komeni da fitxa gordetzea**, baremazio-prozesua amaitzean **kendu egiten dutelako**)

Prozesua azaltzeko eta zalantzak argitzeko hitzaldi irekiak antolatuko ditugu:

Gasteiz. Asteazkena 10, 17:30ean.

Aldabe Gizarte Etxean, Areto Nagusian.

Gasteizko hitzaldia: [Izena eman Gasteiz.](#)

Bilbo. Osteguna 11, 17:30ean

Jose Maria Eskuza 1, 1esk. (STEILASeko egoitzan)

Bilboko hitzaldia: [Izena eman Bilbo.](#)

Donostia. Osteguna 11, 17:30ean.

EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean. (HEFA I)

Donostiako hitzaldia: [Izena eman Donostia.](#)

2021-22 EAEko LEKUALDATZE-LEHIAKETA.

Deialdia **azaroaren 12an** argitaratuko da.

Merezimenduak eta eskaera-epea: **azaroaren 15etik abenduaren 1era.**

Urtero bezala, hitzaldi informatiboak antolatuko ditugu hiru lurraldeetan. Datak eta lekuak zehazten ditugun bezain laster, informazioa helaraziko dizuegu.

EPE 2020. BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETA.

Oposizio-fasea: kalifikazio totalak argitaratu egin dira.

Lehiaketa-fasea: merezimenduak hurrengo astearen amaieran argitaratzea aurreikusten da.

LANBIDE HEZIKETAKO APARTEKO ZERRENDEN IREKIERA.

Eskaerak betetzeko epea eta dokumentazioa aurkezteko (ONLINE):

2021eko azaroaren 8tik 12ra, biak barne.

(1545) Arte grafikoetako produkzioa

(1559) Makinak, zerbitzuak eta produkzioa

* Salbuespen gisa, 5 egunez irekiko dira zerrendak, eta salbuetsita daude prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta/edo hizkuntza-eskakizuna. Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eta irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo 1. hizkuntza-eskakizuna dutenek **EZ dute irekiera honetan izena eman behar.** Etengabe irekita dauden zerrendetan apuntatu behar dira, irakasle.eus atariaren bidez, "Irekita mantentzen diren zerrendak" atalean.

AZAROAK 6 DENOK BILBORA!!!
HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDE, PRIVATIZAZIOARI EZ!!!

www.steilas.eus